

A stylized illustration in shades of blue and red depicting a group of people in a meeting or discussion. The figures are simplified, with some wearing hats or headgear. The background is a solid dark blue, and the foreground features large, flowing, abstract shapes in red and light blue.

Eragin politikorako
eredu dokumentua

Documento marco
para la incidencia política



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

2030 Agenda. Euskadiren eta bertako erakundeen papera mundu globalean

(2019ko urriaren 4ko Batzar Nagusiak onartutako dokumentua)



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

2015eko irailean, munduko agintariek Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuten Nazio Batuetan, hurrengo urteetan garapenaren alorreko nazioarteko ildoak zehaztuko dituen, hain zuzen ere.

Nazio Batuetan sinatutako dokumentu horrek oinarri sendoa izan nahi du pobrezia errotik desagerrarazteko, egoera ahulenean dauden taldeei arreta emateko eta planeta kontserbatzeko eta babesteko lan egiteko, hurrengo 15 urteetarako helburuak eta adierazleak zehaztuta.

Horregatik, errealitate eta lurralde bakoitzean interpretatzeko modukoa izan behar du, eta hala egin behar da, Agenda ezarriz lortu nahi den azken helburua hori bera izango dela ziurtatzeko. Tresna interpretagarria da, eta baliagarria ikusten dugu euskal gizarterako, garapenerako politiken koherentzia lortzeko bidean aurrera egiteko balio duen heinean.

2030 Agendan planteatzen diren helburuak lortzeko, beharrezkoa da helburu horietan lan egitea, maila guztietan, baita estatuz azpiko eremuetatik ere. Ildo horretan, Euskadiko GGKEen Koordinakundean, positiboki baloratzen dugu zenbait euskal erakunde publikok 2030 Agendaren konpromisoa bere egin eta konpromiso hori betetzeko mekanismoak garatu izana.

Gure iritziz, 2030 Agendak eragina izan behar du ekintza politikoan, eta benetako garapen iraunkorra, justua, bidezkoa, solidarioa eta berdintasuneko lortzeko balio dezan nahi dugu. Horretarako, garrantzitsua da Agendari hurbiletik begiratzea, helburu hori lortzea xede duten politika publiko eraginkorrak ezarri ahal izateko.

Bestalde, erne egon behar dugu, ez baitugu nahi egungo jarduna berrantolatzen mugatzen den Agenda bat, pobrezia-egoera, desoreka eta ingurumenaren suntsipena eragiten duten kausak zalantzan jarri gabe.

Agenda eraldatzaile bat nahi dugu, gauzak egiteko era eta gobernatzeko modua sakonetik aldatuko dituen, eta pertsonen ongizatea nahiz planetaren zaintza ekarriko dituen, betiere inor atzean ez uztea premisatzat hartuta. Horretarako, garrantzitsua da Agenda tokian tokiko begiradatik lantzea, aipatutako premisa hori lortzeko tokiko politika publiko eraginkorrak ezartzeko. Agendaren arrakasta, neurri handi batean, estatuz azpiko eremuan duen aplikazioaren mende egongo da, bertan aplikatzen baitira planteatutako helburu gehienak.

Horretarako, abiapuntuaren diagnosi bat egin, plangintzak parekatu eta lehentasunak ezarri behar dira. Abiapuntuaren argazki on bat oinarrizkoa izango da, tokian-tokian eta nazioartean, bai eta beren dimentsio guztietan ere (gizartean, ekonomian, ingurumenean eta gobernantzan), Agenda betetzeko lehentasuneko politika publikoak zein diren zehazteko.

Agenda hori ezarri nahi duen gobernu orok oinarrizko ildo bat zehaztu behar du, egungo egoera eragiten duten kausak identifikatuko dituen. Horretarako, dokumentu honetan bertan adierazleen markoa hautatzeko aipatutako irizpideak hartu behar ditu kontuan, eta zer erronkari egin behar diegun aurre, herritarrek zein arazo nagusi dituzten eta Euskadin ekintza politikoa zein arlotan hobetu behar den identifikatzen dela bermatu behar du. Problematika horri heldu beharko zaio hurrengo urteetako ekintza politikoa, eta problematika horren arabera lehenetsiko dira helburuak, xedeak eta ibilbide-orrria Euskadin 2030 Agenda ezartzeko. Hori guztia, gainera, politika guztien arteko koherentziaren ikuspegitik egin behar da, eta inor ez dela atzean geratzen bermatuz; horretarako, beraz, egoera ahulenean zein talde dauden identifikatu behar da, politika publiko guztietan lehentasunez artatu daitezten.

Aritze horretan, gizarte zibilak ere parte hartu beharko luke, eta indarrean diren politikak, araudiak eta sektoreko bestelako estrategiak berrikusi, eguneratu, egokitu eta mapatu beharko lirake. Begirada berri horri esker, jakingo dugu zein politikak laguntzen duten Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) betetzen, bai eta zer hutsune dauden, zer sektorek esku hartzen duten, nork bildu eta sortu behar dituen datuak, eta koordinaziorako zer mekanismo indartu behar diren ere.

Politiken koherentziari dagokionez, ezinbesteko ikusten dugu plangintzak eta politikak bi alderdiren arabera zerrendatzea. Hau da, alde batean, giza garapen iraunkorrean eta 2030 Agendaren ezarpenean positiboki laguntzen duten politikak egongo lirake, eta, bestean, alderdi horietan eragin negatiboa duten politikak.

Azterketa horren ondotik, zer helburu eta zer xede sustatu behar diren bereziki zehaztuko da, egungo plangintzaren eta exekuzioaren bitartez sustatzen ez direnak, hain zuzen. Inor atzean ez uzteko premisa horren azpian, beharrezko diren aurrekontuak eta baliabideak ezarri behar dira, bai eta horiek aplikatzeko egutegi bat zehaztu ere, Agendaren ezarpenean subjektu aktibo izan daitezkeen eragile guztiek parte hartzeko, jarraipena egiteko eta kontu emateko finkatutako mekanismoekin..

Gobernantza, koordinazio bertikala/horizontala eta gorengo mailari atxikitako koordinazio politikoa. Parlamentuaren kontrola

Koordinazio politikorako mekanismo horrek gidatu behar du Agendaren aplikazioa, gizarte-eragile guztiak esku hartzera bultzatuz eta gobernuko beste maila batzuekiko koordinazioa indartuz.

Horrez gain, behar beste baliabide tekniko eta ekonomiko esleitzea bermatu behar da.

Funtsezkoa da lurralde-administrazioekin eta toki-erakundeekin artikulatzeko, koordinatzeko eta elkarrizketa politikoa izateko guneak ezartzea, 2030 Agendaren ezinbesteko lokalizazioan laguntzeko. Hala, sinergiak sortu behar dira beste administrazio-maila batzuekin, eta herritarrengandik gertuen dauden gobernu-erakundeek abian jarritako ekimenetatik elikatu behar da. Maila anitzeko artikulazio-gune hori errealitate bihurtzeko, beharrezkoa da lokalizazio-prozesuan esku hartzen duten eragile guztien iritziak eta proposamenak aintzat hartzea, hala nola diputazioena, toki-entitateena eta gizarte zibileko erakundeena.

2030 Agendak aurre egin nahi dien arazoen izaera holistikoa eta multidimentsionala direla-eta, beharrezkoa da gobernantza tradizionalaren arkitektura berriro definitzea. Horretarako, ezinbestekoa da koordinazioa erakunde bakoitzeko gorengo mailan izatea, eta lehendakaritzei atxikitako eta dagokion organo legegileak kontrolatutako departamentuz gairako mekanismoak sortzea, ikuspegi hori administrazio-arlo guztietan txertatzeko. Horrela soilik bermatu ahal izango da 2030 Agenda hainbat departamenturen ekintza globalean aplikatzea.

Gure iritziz, koordinaziorako erakunde arteko guneak ere baliatu egin behar dira, sektore bakoitzaren ezarpen-ahalmenean sakontzeko.

Parte-hartzea. Jarraipena egiteko eta kontu emateko mekanismoak

Funtsezkoa da guretzat kontu emateko prozesu parte-hartzaile, garden eta eraginkor bat zehaztea herritarrentzat. Horretarako, beharrezkoa da deliberamendurako eta parte-hartzerako gune bat ezartzea, akademiako adituen, enpresa-sektorearen eta gizarte-mugimenduen ekarpenak batuz, bai eta, egoera ahulenetan dauden taldeetan, aurrerapenen eta erronken jarraipenaz eta berrikuspenaz arduratzen diren ordezkarien ekarpenak batuz ere.

Gure iritziz, erakundeei dagokie beharrezkoa den informazio eta baliabide guztiak ematea, parte hartzeko mekanismo hau eraginkorra izan dadin, betiere parte-hartzerako gune horretan egiten diren ekarpenak kudeaketa publikoan txertatzeko konpromiso betearekin.

Agendaren aplikaziorako, jarraipen- eta kontrol-mekanismoak behar dira, parte-hartze zabal eta inklusibo baterako estrategia batekin, eta herrialdeko gizarte-, politika- eta ekonomia-eragileen ordezkaritza sustatu behar da. Halaber, gizarte zibileko pertsonak gaitzeko prozesuak bultzatu eta sustatu behar dira, GIHak zaintzeko eta horien jarraipena egiteko guneetan parte har dezaten, gaur egun ez baitugu nahikoa presentzia.

Gizarte-eraldaketarako hezkuntza ere sustatu behar da, GIH horien pedagogia egiten lagunduko duen tresna gisa, eta tokiko ikuspegia edo ikuspegi globala txertatu behar da, bai eta eskubideen ikuspegia ere.

Prozesuan koherentzia lortzeko, hiru mailatan banatutako egituraren esku hartu behar da. Nazioarteari dagokionez, helburuarekin bat eginez eta Nazio Batuen nahiz Europako 2030 Agendaren jarraipen- eta berrikuspen-mekanismoetan, eskualdeei dagozkienetan, parte hartuz esku hartuko da, eta eragin politikorako prozesuak bultzatuz. Estatu-mailan, Espainiako Gobernuak sustatutako Garapen Iraunkorrerako Kontseiluan parte hartuz. Eta tokian-tokian, gizarte zibilak parte hartzeko bidea ematen duen antzeko erakunde batean parte hartuz, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren ezarpenean, jarraipenean eta kontrol sozialean laguntzeko.

Finantzaketa-mekanismoak. Aurrekontuak

2030 Agendarekin bat datozen programak gauzatzeko aurrekontuak baldintzatuko du GIHak tokian-tokian lortzea ala ez. Horregatik, aurrekontu publikoak egitean, beharrezkoa da Agendarekin bat datozen ekintzak kontuan hartzea eta lehenestea, bai eta eragin negatiboa duten ekintzak gutxitzea edo beste modu batean bideratzea ere.

Agenda gorengo mailan teilakatu behar da, eta, horretarako, aurrekontuak egokitu behar dira, lankidetzarako partidei kalterik egin gabe.

Sektore pribatua Agenda hau ezar dezakeen eragile bat dela kontuan hartuta, arreta berezia jarri beharko zaie aurrekontu publikoei. Izan ere, sektore pribatuak 2030 Agendarekin bat egiteari ondo deritzogun arren, bere funts pribatuekin finantzatu beharko lukeela uste dugu.

Agenda aplikatu ahal izateko, gizarte-politika birbanatzaileak egin behar dira, gizarte-arloko inbertsio eskuzabal batekin. Diagnosian identifikatutako talde ahulenen aukera-berdintasuna sustatzea eta desoreka murriztea izan behar dute xede proposamen horiek, bai eta ingurumen-kudeaketa hobetzea eta ekosistema degradatuak leheneratzea ere. Horrez gain, aurrekontu orokorren partidak 2030 Agendaren helburuen eta xedeen alde baliatu behar dira, ezarpenaren jarraipen ekonomikoa egiteko eta baliabideak egoera ahulenean dauden pertsoneri iristen zaizkiela bermatzeko.

Zerga-politika justu eta birbanatzaile bat behar da, eta, horrekin batera, paradisu fiskalen aurka borrokatu behar da, GIHen ezarpena finantzatzeko behar diren baliabideak mobilizatzeko.

Adierazleak eta xedeak

Ebaluatu ahal izateko, nahikoa anbizio handiko xedeak dituen adierazle-marko bat zehaztu behar da, gure abiapuntuko egoeraren parean (diagnosia eta oinarritzko ildoak), eta Agendaren beraren denbora-muga gainditu dezakeen aukera planteatu behar da.

Gaur egungo adierazleek ez dituzte betetzen Euskadiko GGKEen Koordinakundearen itxaropenak, eta ez dugu argi egokienak ote diren ere.

Adierazleak zehazteak berak ere kutsu politikoa du, eta arreta berezia jarri behar zaio egoera ahulenean dauden taldeek zer aurrerapen egiten dituzten neurtzeari; hau da, datuak bereizita eman behar dira, eta Euskadiko erronka nagusiei heldu behar zaie. Horrez gain, beharrezkoa iruditzen zaigu Agendan modu negatiboan eragiten duten prozesuen eta politiken jarraipena egingo duten adierazleak ezartzea, eta ibilbide-orri bat zehaztea prozesu nahiz politika horiek gutxitzeko eta desagerrarazteko.

Jarraipena egiteko adierazleak zehazteko eta erabakitzeko, zenbait erakundek ildo horretan dagoeneko zehaztuta dituzten proposamenak har daitezke oinarri, hala nola Europar Batasunak, Espainiako Gobernuak, Watch Europek eta GIHEk, bai eta Euskadiko eragileek (esaterako, Udalsareak eta Eustatek) garatutako adierazleak ere. Adierazleen zehazte-lana etengabeko ikaskuntza-prozesu ireki eta parte-hartzaile baten baitan proposatzen dugu, beste eragile batzuek ere (gizarte zibilak, kasu) parte hartu ahal izateko. Horregatik guztiagatik, 2030 Agendaren adierazle-multzoa definitzeko, adosteko eta horren jarraipena egiteko lan-plangintza bat zehaztu eta zabaldu behar da, eragile desberdinen parte-hartzea sustatuko duten prozesuen bitartez.

Adierazle horiek, bestalde, neurketa-proposamen berritzaileak izan behar dituzte, giza eskubideen eta genero-berdintasunaren ikuspegiak kontuan hartzen dituztenak, eta egoera ahulenean edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonen eta taldeen errealitatea eta arazoak aitortu eta agerian jartzen dituztenak.

Errealitatea hobeto eta sakonago ezagutu behar da, bereizitako datu hobeen bitartez, eta aurrerapena neurtzeko beste modu batzuk ezarri behar dira, Barne Produktu Gordinaren neurketaz harago. Izan ere, indize horrek ez du giza garapen iraunkorra neurtzen; hau da, adierazle itsua da gizakiaren eta ingurumenaren eskubideak errespetatzeari dagokionez.

Horrez gain, positiboa iruditzen zaigu intersekzionalitatea kontuan hartzen duten adierazleak txertatzea, aurrez adierazitako diagnosiarekin bat datozenak eta herritarren parte-hartze aktiboa aintzat hartzen dutenak. Euskal erakundeei dagokienez, adierazle harmonizatu batzuk proposatzen ditugu.

Bestalde, adierazleak aldian behin berrikusi behar dira, zer aurrerapen egin ditugun neurtu ahal izateko eta hautematen ditugun beharrak zuzenduz joateko, betiere inor atzean ez uztea azken helburutzat hartuta.

Finean, xedea da ekintza oro bat etortzea giza garapen iraunkorraren paradigmarekin, garapenerako koherentzia politikoaren gure proposamenean jasotzen duguna, hain zuzen.

